

«Kanpoko baliabideak eta baliabide propioak bilatzea eta optimizatzea»

**KIROL FEDERAZIOEN KUDEAKETARI BURUZKO III.
JARDUNALDIAK
Donostia 2016/05/20**



gipuzkoa



Jardunaldiaren helburua

Baliabideen bilaketarekin edo optimizazioarekin lotutako hainbat gairen inguruan autonomia-eta lurralde-federazioak biltzea zen jardunaldiaren helburua.

Hartarako, esperientziak eta beharrak trukatu zituzten, ondoren irtenbideak edo etorkizunean aplikatzeko moduko jardun-ildoak elkarrekin bilatzeko.



Honako gai hauei heldu zieten:

1. Kirol-aseguruan aurreztea.
2. Ekitaldien antolamendua (ikusleak).
3. Zerbitzuen prestazioa: jarduerak (ikastaroak, campusa...), prestakuntza, instalazioen kudeaketa...
4. Baliabide propioak handitzea (lizentziak eta inskripzioak).
5. Babesleen eta marketineko produktu/materialen salmentaren bidezko diru-sarrerak.
6. Zerbitzuen mankomunitatearen onurak.



1. Aurreztea kirol-aseguruan

- Prezioaren bilakaera eta dena delako kirol-modalitatean klubek kirol-aseguruz zer erabilera egiten duten.
- Aseguru-primak egokitzea klubien eta kategorien arabera, egindako parteen historia aztertuta.
- Konpainiak dibertsifikatzea aseguraturako segmentuaren arabera:
 - Kirolariak
 - Arbitroak
 - Entrenatzaileak
- Klubekin gardentasunez jokatzeko azterketa eta horren ondoriozko ekintzak azaltzeko orduan.

*** *Kirol-aseguruen kostua optimizatzea zaila da, aseguru-enpresentzat ez baita ekonomikoki errentagarria kirol-modalitate ezberdinetako kirolariak aseguratzeko.***

2. Ekitaldien antolamendua (ikusleak)

Proposatutako jarduera-ildoak:

- Ekitaldi bereziak eta eragina dutenak.
- Aldian behingo ekitaldiak eta epe laburreko estrategia jarraitzen dutenak, era horretan gutxieneko egitura bat antolatu ahal izan dezazun.
- Berrikuntza edizio bakoitzean.
- Ekitaldi nagusiaren inguruan lotura duten ekitaldiak gehitzea.
- Komunikazio-estrategia ona edukitzea.
- Ekitaldiaren kalitatea lehenestea.
- Markako irudia sortzea.

2. Ekitaldien antolamendua (parte-hartzea)

Proposatutako jarduera-ildoak:

- Kalitateko ekitaldiak antolatzea. Antolaketa ona eta zerbitzu ona parte-hartzailearentzat.
- Ekitaldi jasangarriak planteatzea (epe ertaineko plana) lehen urteetako zailtasunaren jakitun izanik.
- Antolatu beharreko ekitaldiaren aurretiko azterketa egitea honako alderdi hauei dagokienez:
 - ✓ Antolatu beharreko proban zer eskari dagoen.
 - ✓ Prezioan beste ekitaldi batzuekin lehiatzeko gaitasuna.
 - ✓ Data egokia hautatzea.
 - ✓ Kostua/aukera.
 - ✓ Behar diren giza baliabideak eta baliabide materialak.
- Babesle ekonomikoak eta baliabideak ematen dituzten laguntzaileak/babesleak bilatzea.
- Komunikazio-estrategia.

3. Zerbitzuen prestazioa: jarduerak (ikastaroak, campusa...), prestakuntza, instalazioen kudeaketa...

- Federazioa eta modalitatea oso ongi ezagutzen dituen lantaldea edukitzea.
- Proiektu errazak eta ulergarriak egitea, izan litezkeen eragile laguntzaileei errazago azaltzeko (erakundeak, babesleak, laguntzaileak eta gainerakoak).
- Proiektuetan kudeaketa-ehuneko bat egoztea, federazioetan egituren beharraren balioa nabarmentzeko eta haien kostuak jasan ahal izateko.
- Erakundeekin elkarlanean aritzea burokraziako kudeaketak arintzeko.
- Kanpoko aholkularitzan oinarritzea proiektuak ezin hobeto garatzeko.

4. Baliabide propioak handitzea (lizentziak eta inskripzioak)

- Kategoria bakoitzean izena emandako talde bakoitzeko kuotak ezartzea.
- Estatu, autonomia eta lurraldeko federazioen artean lizentzien banaketa optimizatzea.
- Ehuneko txiki bat atxikitzea arbitrajeengatik federazioari dagokion eskubide gisa.
- Zehapen/isunen zenbatekoaren ehuneko txiki bat atxikitzea federazioarentzat.

5. Babesleen eta marketineko produktu/materialen salmentaren bidezko diru-sarrerak

- Irudia lantzea. Babesleak bere markari lotu nahi dizkio kirola eta balioak, irudia nahi du azken batean.
- Azalpen-txostenak prestatzea, kirol-modalitatearen edo -ekitaldiaren baliabide bisual eta grafikoekin.
- Babeslea zaintzea eta mimatzea, fidelizazioa lortzeko.
- Etengabeko komunikazio iraunkorra babeslearekin.
- Dokumentazioa (argazkiak, bideoak eta abarrak) sortzea babesleak erabil ditzan.
- Ekipamenduak. Erreferentziako marka babeslea, klubekin beharrez, federazioarekin identifikatzen saiatzea. Marka nagusia barne hartzen duen aterkia da federazioa, eta klub bakoitzak pertsonalizatu dezake (EHSF, adibidez).

5. Babesleen eta marketineko produktu/materialen salmentaren bidezko diru-sarrerak

- Denda fisiko propioa sortzea ordezeko diru-sarreraren iturri gisa eta babesleen erakargarri modura.
- Babesletzak klubekin lotzea dohaintzen edo fundazioen bidez, babeslearentzako onura fiskalak sortzeko, horrela babesletzaren zenbateko garbia handiagoa izan dadin.
- Federazioaren estamentu bat (arbitroak, entrenatzaileak eta abarrak) babesletza bati lotzen saiatzea baliabide propioak handitzearren.
- Fakturazioaren ehuneko bat babesletzara bideratzeko aukera ohiko hornitzaileekin (garraioa, ostatua, eta abar) negoziatzea.
- Gauzazko babesletzak bilatzea (kirol-materiala, elikagaiak, edariak eta abarrak).

6. Zerbitzuen mankomunitatearen onurak

- Federazioetarako zerbitzu zentralak gastuak optimizatzeko:
 - ✓ Kontabilitatearen, lanaren eta zergen arloko aholkularitza
 - ✓ Aholkularitza juridikoa eta kirol arlokoa
 - ✓ Prentsa eta komunikazio arloetako aholkularitza
 - ✓ Erantzukizun zibileko aseguruia administratzaile eta zuzendaritzako kideentzat
 - ✓ Administrazio-zerbitzuak
 - ✓ Itzulpenak
 - ✓ Erosketa-taldea? Hornitzaile bateratuak?
 - ✓ Kirol-asegurua?
- Zerbitzu mankomunatuak doan eskaintzea edo irizpideak ezartzea zerbitzuak doan nork eskuratzen dituen erabakitzeko (lizentzia kopuruaren edo federazio bakoitzak jasotako diru-laguntzen arabera).
- Zerbitzu zentralak ezartzen badira federazio bakoitzean zenbat kaleratze egon daitezkeen aztertzea.
- Zerbitzuak eta/edo pertsonak mankomunatzeko autonomia eta lurraldeko federazioen artean.

